

BBK KUNA DINAMIZAZIOA

HAURKUNA 2022/2023

PROZEDURA METODOLOGIKOA

Jarraian, **BBK KUNA** gunerako jarduera-programa bat aurkezten dugu; jarduera horiek hezkuntza-tresna bat dira, parte-hartzaileekin hainbat balio eta jarrera lantzeko. Balio eta jarrera horien esparru orokorra **Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak (GJH)** lortzeko konpromiso globala da, hurbildu eta jarduera-programa bat proposatzen laguntzen digute, eta edukiek...

- Hezkidetzako dinamikak eta garapenerako gizarte-trebetasunak planteatzen dituzte.
- Parte-hartzearen bidez, aurreikusitako agenda osatzen dute.
- Ingurunearen eta bizikidetzaren zaintza bultzatzen dute.

ERRUTINA METODOLOGIKOA

Ongietorria: Begirale edo monitorea lehenago iritsiko da lekura: materialak ordenan jartzeko, plangintza egin, material, jolas edo jarduera bereziren bat prestatu, eta haurren zain egoteko.

Aretoa ireki eta haurrak sartuko dira.

Harrera egiteko unea da. Iristen den haur bakoitza banaka hartuko da, eta taldea osorik sartu denean, denok lurrean esertzeko moduko leku batera joango gara (adibidez, koltxoneta baten gainera).

Agurra eta etorritakoen zerrenda.

Jarraian, elkar agurtu eta nor etorri den erregistratuko dugu.

Batzarra: Eguneko jarduerak aurkeztea. Egun horretarako programatutako jarduera zertan datzan azalduko du begiraleak, haurrek jolasa jarraitu ahal izateko beharrezkoak diren datuekin (jarraibideak, erabili beharreko materialak, ludotekan kokapena...).

Planteaturiko jardueraren garapena

Parte-hartzaileek jarduera ebaluatzea

Ludotekatik irtetea: Haur bakoitza bere familiarekin doala ziurtatu behar da.

Ebaluazioa, ordena eta garbitasuna: Umeak agurtu ostean, monitorea beste tarte bat geratuko da dena ordenatuta uzteko, ebaluatzeko eta eguneko zera garrantzitsuenaz oharrak egiteko.

1- AGENDA

URRIA

17,30etik 18,30era

Urriak 1	Urriak 5	Urriak 8	Urriak 15
Baserria ezagutzen	Frutometroa	Musika-uztaiak	Birzikl-ARTE Bolak harrapatzekoa

Urriak 19	Urriak 22	Urriak 26	Urriak 29
Kuadrillakoak eta ni	Dantza egitera euskal kantarekin	Munduko jolasak - Klotski	Puxiken diseinua

AZAROA

17,30etik 18,30era

azaroak 2	azaroak 5	azaroak 9	azaroak 12
Hiri kubistak	Udazkeneko koloreak	Herensugeak	Emadazu erritmoa

azaroak 16	azaroak 19	azaroak 23	azaroak 26	azaroak 30
titireando (Txotxongilotuz)	Murala off-en neonezko pintura	Birziki-ARTE Mosaiko hegalaria	Munduko jolasak - uztaiak eta puxika / Peruko estatuak	Zientzia-tailerra. Paperezko hartxoak

ABENDUA

17,30etik 18,30era

abenduak 3	abenduak 10	abenduak 14	abenduak 17	abenduak 21
Sustraiak euskal banda	Elurrezko panpinak	Gabonetako sorpresak	Urpeko biziak	Olentzero dator!

URTARRILA:

17,30etik 18,30era

Urtarrilak 11	Urtarrilak 14	Urtarrilak 18	Urtarrilak 21
Ozeanoak sortzen	Itsas animaliak: Olagarroa.	Ozeano-garbitzaileak	Itsas hondoa zaintzen

Urtarrilak 25	Urtarrilak 28
Criss Cross erraldoia	Nor bizi da itsasoan?

OTSAILA

17,30etik 18,30era

Otsailak 1	Otsailak 4	Otsailak 8	Otsailak 11
Ontziari jaurtitzea	Hartz zuriak ez du etxerik	Climate Change	Erloju meteorologikoa

Otsailak 15	Otsailak 18	Otsailak 22	Otsailak 25
Ametsak harrapatzekoa	Beste bizialdi bat ematen diogu	Ekomezuak	Saskiratu hondakinak

MARTXOA

17,30etik 18,30era

Martxoak 1	Martxoak 4	Martxoak 8	Martxoak 11
Uraren zikloa	Euri-tantak	Zer gertatzen zaio gure itsasadarrari?	Kameraren erritmoan

Martxoak 15	Martxoak 18	Martxoak 22	Martxoak 25
Euri Maitea-Querida Iluvia	Ura da zure laguna - el agua es tu amiga	Uraren Mundu Eguna!	Ghost Poppers

APIRILA

17,30etik 18,30era

Apirilak 19	Apirilak 22	Apirilak 26	Apirilak 29
Ongi etorri, eguzki	Eguzki energia	Haizearen zirkua	Putz-lasterketa

MAIATZA

17,30etik 18,30era

Maiatzak 3	Maiatzak 6	Maiatzak 10	Maiatzak 13
Igelak bezala arnasten dugu	Ortu txikia	Erritmoa eta mugimendua	¿Y si me como una zanahoria? (Eta azenario bat jaten badut?)

Maiatzak 17	Maiatzak 20	Maiatzak 24	Maiatzak 27	Maiatzak 31
Azenariozko cup cake	Bota dadoa	SOS 112	Ospitalea handi bat	Osasuna guztiontzat

2. JARDUEREN AZALPENA

URRIA

BASERRIA EZAGUTZEN – BASERRIKO BIZILAGUNAK

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Osasuna eta ongizatea sustatzea.
- Askotariko materialekin harremanetan esku-trebetasunak eta trebetasun espezifikoak garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea jarduera artistikoekin eta elikadura osasungarria eta gure ingurunearen zaintza sustatzen dutenekin.

DESKRIBAPENA: 3. GJHaz, osasun eta ongizateari buruzkoaz, berba egingo dugu. Gure osasuna eta ongizatea sustatzeko, baserri batera joango gara. Han inguruan lantzen diren elikagai naturalez eta bertan bizi diren abereez, adibidez ardiez, berba egingo dugu, esne bikaina ematen baitigute gazta egiteko. Tailer honetan ardiak egingo ditugu: gorputza egiteko arto-opil harrotu bat hartuko dugu oinarri, eta aurpegitxoak kartoi mehearekin eta itsasteko begitxoekin egingo diegu.

MATERIALAK: arto-opil harrotuak, kartoi meheak eta itsasteko begitxoak.

FRUTOMETROA

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Elikadura osasungarria sustatzea.
- Sormena sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea arte- eta hezkuntza-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 3. GJHaz, osasun eta ongizateari buruzkoaz, berba egingo dugu. Elikadura osasungarria izatearen garrantziaz berba egingo dugu eta elikagai osasungarrienetako bat fruta naturala dela aipatuko dugu. Horretarako, frutometro edo neurgailuak sortuko ditugu material artistikoarekin, jaten ditugun fruituen kopurua idatziz joateko. Etxera eroan eta sukaldeko leku ikusgarri batean jarriko dugu.

MATERIALAK: kartoi mehe beltza, gorria, berdea; guraize edo artaziak, itsasgarria, koloretako pinturak eta imanak.

MUSIKA-UZTIAK

JARDUERA: MUSIKA-JOLASAK

HELBURUAK:

- Leku edo guneen zaintza sustatzea.
- Jolas tradizionalak eta taldekoak sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea jolas-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 15. GJHaz, lehorreko ekosistemei buruzkoaz, berba egingo dugu. Jarraian, musika-jolasak egingo ditugu, ekosistemen zaintza birsortzeko. Egingo ditugun jolasak: Hirurok globoan, eta Ahur edo esku-jolasak.

Hirurok globoan: Hiruko taldean. Batek uztaiak eroango du eta bere buruaren gainean bertikalean altxatuko du; beste biak, berriz, uztaiari eusten dionaren alde banatan jarriko dira. Uztaiak zeharkatuz puxika alde batetik bestera jaurtitzea izango da jolasa. Uztaiak daramanak mugimenduarekin lagun dezake.

Esku azkarrak: Jolas honetan esku bat luzatzen da ahurrarekin gorantz, eta lehiakideak esku horren gainean jarri beharko du berea ahurra ahurrarekin, bere eskugaina gorantz dela. Biek, adi-adi, arreta guztia jarrita, beste eskuarekin esku-zarta bat ematen saiatu beharko dute, arerioaren eskua bere eskuen artean harrapatzeko. <https://www.elblogdetubebe.com/mejores-juegos-de-manos-para-ninos/>.

MATERIALAK: uztaiak, puxikak, musika eta fitxa didaktikoa.

Birzikl-ARTE – BOLAK

HARRAPATZEKO

JARDUERA: EKO-TAILERRA

HELBURUAK:

- Kontsumo arduratsua lantzea.
- Beraien sormena eta psikomotrizitate fina sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea birziklatzea sustatzen duten jardurekin.

DESKRIBAPENA: 12. GJHaz, ekoizpen eta kontsumo arduratsuari buruzkoaz, berba egingo dugu. Ondoren, tailerrera joango gara, eta birziklatzearen bidez landuko dugu helburu hau. Bolak harrapatzeko bat egingo dugu birziklatzeko hainbat materialekin. Ontzi, soka eta borlekin egingo dugu.

MATERIALAK: plastikozko edalontziak edo ontziak, sokak, guraize edo artaziak eta borlak.

KUADRILLAKOAK ETA NI

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Bizikidetzaren errespetua eta nortasuna sustatzea
- Askotariko materialekin harremanetan esku-trebetasunak eta trebetasun espezifikoak garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea hezkuntza-jardurekin eta birziklapenarekin.

DESKRIBAPENA: 4. GJHan, kalitatezko hezkuntzan, sartuko gara, Bilboko Udalaren balio-agenda ere landuz: "nortasuna, bizikidetzaren eta begirunea". Hori pertsoniak egiteko tailer baten bidez landuko dugu, eta pertsoniak sortzeko birziklatzeko plastikozko koilarak hartuko dira oinarri gisa, eta hainbat materialen bidez nortasuna emango diegu.

MATERIALAK: plastikozko koilarak, koloretako kartoi meheak, artilea, itsasgarria eta errotuladoreak.

DANTZA EGITERA EUSKAL KANTAREKIN

JARDUERA: MUSIKA-JOLASAK

HELBURUAK:

- Ohitura osasungarriak sustatzea eta jardueraren fisikoa egitearen garrantziaz jabetzea.
- Gure kultura sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea musika-jardurekin.

DESKRIBAPENA: 3. GJHaz, osasun eta ongizateari buruzkoaz, berba egingo dugu. Musika eta mugimendua dira sustatzen duten jarduerak eta horretarako jolas musikal bat egingo dugu. “RIKI RIKI SALA LA LA” abestiarekin, bere letra ikasi eta koreografia bat sortuko dugu. Abesti honekin euskara eta ohitura osasungarrien ikaskuntza sustatuko ditugu.

MATERIALAK: Musika abestiarekin.

MUNDUKO JOLASAK - KLOTSKI

JARDUERA: BIRZIKLATZE-TAILERRA

HELBURUAK:

- Kontsumo arduratsua sustatzea, material birziklatuekin jolasak eginez.
- Jarduera artistikoak sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea jolas-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 12. GJHaz, ekoizpen eta kontsumo arduratsuari buruzkoaz, berba egingo dugu. Tailer baten bidez landuko dugu, eta bertan puzzle mugikor bat egingo dute material birziklatuarekin.

MATERIALAK: birziklatzeko kartoia, txantiloia marrazkiarekin, artaziak, koloretako pinturak eta itsasgarria.

PUXIKEN DISEINUA

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Bakerako heztea.
- Askotariko materialekin harremanetan berariazko esku-trebetasun eta trebetasun psikomotorrak garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea balioetan oinarritutako hezkuntza sustatzen duten jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 16. GJHaz, bakea eta justiziaz, berba egingo dugu; gure artean bizikidetzak sustatzearen garrantziaz. Hori lantzeko, tailer bat egingo dugu oinarritzko material gisa puxika zuriak direla. Zuriak bakea irudikatuko du eta puxikak gu geu izango gara. Bakoitza pertsonalizatuko dugu, azkenean horma-irudi handi batean elkartzeko.

MATERIALAK: puxika zuriak, papera, itsasgarria, artaziak, artilea eta horma-papera.

AZAROA

HIRI KUBISTAK – JEINU BAT BERDINDU GURAN

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Iraunkortasun edo jasagarritasuna sustatzea.
- Askotariko materialekin harremanetan berariazko esku-trebetasun eta trebetasun psikomotorrak garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea birziklatutako materialekin jarduera artistikoak eginez.

DESKRIBAPENA: 11. GJHari, hiri eta komunitate jasagarrirei, buruz berba egingo dugu. Kartoi mehezko

fitxa baten gainean landuko dugu hiri bat eginez sistema kubistarekin. Birziklatzeko ontzietatik hainbat tamainatako zatiak moztuko ditugu.

Jarraian, forma geometriko horiek fitxa gainean jarri eta itsatsi egingo dituzte.

MATERIALAK: birziklatzeko ontzia, artaziak, itsasgarria eta fitxa.

UDAZKENEKO KOLOREAK

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Ingurumenaren zaintza sustatzea.
- Askotariko materialekin harremanetan berariazko esku-trebetasun eta trebetasun psikomotorrak garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea birziklatutako materialekin jarduera artistikoak eginez.

DESKRIBAPENA: 15. GJHaz, lehorreko ekosistemei buruzkoaz, berba egingo dugu. Inguruan ditugun espazioak zaintzearen garrantzia landuko dugu, eta egiten diguten ekarpen guztia, zaintzen baditugu. Jarraian, Bilboko parkeetan batutako hosto eroriekin sorkuntza-lan bat egingo dugu. Tenpera jarriko diegu eta zigiluak egingo ditugu hostoak paper gainean jarrita.

MATERIALAK: papera, tenpera eta bildutako zuhaitz-hostoak.

HERENSUGEAK - DRAGOIAK

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Ekosistemen eta animalien zaintza sustatzea.
- Askotariko materialekin harremanetan berariazko esku-trebetasun eta trebetasun psikomotorrak garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea birziklatutako materialekin jarduera artistikoak eginez.

DESKRIBAPENA: 15. GJHaz, lehorreko ekosistemei buruzkoaz, berba egingo dugu. Gure ekosistemak zaintzearen garrantzia landuko dugu, horrela animaliak babesten ditugu-eta. Ondoren, material birziklatuarekin sorkuntza bat, dragoi bat, egingo dugu. Oinarria kartoizko biribilkiarekin egingo dugu, eta sua zeta-paperezko zintekin.

MATERIALAK: kartoizko biribilkiak, zeta-paper laranja eta horia, folio berdeak, borla txikiak, artaziak, itsasgarria eta errotuladoreak.

EMADAZU ERRITMOA

JARDUERA: MUSIKA-JOLASAK

HELBURUAK:

- Ohitura osasungarriak sustatzea.
- Jarduera fisikoa egitearen garrantziaz jabetzea.
- Musikarekin jolastea.

DESKRIBAPENA: 3. GJHaz, osasun eta ongizateari buruzkoaz, berba egingo dugu. Ohitura osasungarriak izatearen eta egunero ariketa fisikoa egitearen garrantziaz eta horrek gure osasunean dituen onurez berba egingo dugu parte-hartzaileekin. Ondoren, dantza-saio bat egingo dugu zuzendutako koreografiarekin. Berotzeko musika-jolas batzuekin hasiko gara eta gero musikaren

erritmoan dantza egingo dugu. Dantza nagusiaren ardatza koreografia bat da, koadroekin markatutako laukizuzen handi baten gainean (klarionaz) egina, eta handik igaro behar da panderoarekin, jarraibideak betez.

Handik igaro behar dute banan-banan.

MATERIALAK: musika eta klarionak edo ibilbide musikala markatzeko zintak.

TITIREANDO (TXOTXONGILOUZ)

JARDUERA: BIRZIKLATZE- ETA SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Kontsumo arduratsua sustatzea, material birziklatuekin jolasak eginez.
- Jarduera artistikoak sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea arte- eta jolas-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 12. GJHaz, ekoizpen eta kontsumo arduratsuari buruzkoaz, berba egingo dugu. Plastikozko edo gomazko eskularruak birziklatu eta txotxongiloak eginez landuko dugu. Eskularruaren gainean pertsonaia sortuko dugu eta hari begiak, ahoa, ilea... jarriko dizkiogu.

<https://www.youtube.com/watch?v=LP2hDYCsx4A>

MATERIALAK: birziklatzeko eskularruak, artilea, itsasteko begitxoak, itsasgarria eta artaziak, silikonazko pistola, kotoiak eta EVA goma.

MURALA OFF-EN – NEONEZKO PINTURA

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Genero-berdintasuna sustatzea.
- Jarduera artistikoak material berritzaileekin sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea arte- eta hezkuntza-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 5. GJHaz, genero-berdintasunari buruzkoaz, berba egingo dugu. Jarraian, mural handi bat egingo dugu, eta hitz egin dugunari buruzko marrazkiak egingo ditugu han neonezko (fluoreszente) pinturekin. Gero, argia moteltzean, margotutako guztiak ilunpetan dir-dir egiten duela esperimentatuko dute.

MATERIALAK: paper iluneko mural edo horma-irudia, neonezko pinturak eta pintzelak.

Birziki-ARTE – MOSAIKO HEGALARIAK

JARDUERA: EKO-TAILERRA

HELBURUAK:

- Kontsumo arduratsua lantzea.
- Beraien sormena eta psikomotrizitate fina sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea birziklatzea sustatzen duten jarduera ludiko eta artistikoekin.

DESKRIBAPENA: 12. GJHaz, ekoizpen eta kontsumo arduratsuari buruzkoaz, berba egingo dugu. Ondoren, tailerrera joango gara, eta birziklatzearen bidez landuko dugu helburu hau. Paperezko plateretan GJHen txantiloia marraztu eta birziklatzeko kolorezko paper-zatitxoekin beteko dugu, mosaiko bat balitz bezala. Ondoren, plater hegalaria botatzen edo jaurtitzeko jolas egingo dugu.

MATERIALAK: kartoizko platerak, koloretako papera, artaziak eta itsasgarria.

MUNDUKO JOLASAK – UZTAIA ETA PUXIKA / PERUKO ESTATUAK

JARDUERA: MUNDUKO JOLASAK

HELBURUAK:

- Helburu baterako ahalegina, ilusioa eta talde-lana sustatzea.
- Psikomotrizitatea lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea jolas-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 17. GJHaz, helburuak lortzeko aliantzei buruzkoaz, berba egingo dugu. Jarraian, munduko jolasen bidez landuko dugu.

Uztaia eta puxika, ibilbide bat markatuko dugu, irteera eta helmugarekin. Parte-hartzaile guztiek banan-banan egingo dute ibilbidea. Irteeran, puxikarekin kokatuko da jokalaria, eta 'hasi!' esandakoan, puxika kolpatuz irten behar du, ibilbidearen amaieran egongo den uzta batean sartu edo saskiratu arte. Guztiek egin ostean, zailtasuna areagotuko da eta buruaz edo hankaz jota 'sartu' beharko dute. Aldi berean, beste lankide batzuekin aliantzak egitea proposatzen dugu, horiek erraztu dezaten guztiak proba eginda iritsiko direla helmugara.

Jarraian, "Peruko estatuak" jolasean ere arituko gara. Jolas honetan beste haur baten atzean mugituko den haur-talde bat egoten da. Honek buelta ematen duenean, besteek geldirik geratu behar dute estatuak balira bezala; erreakzionatzen badute, mugitzen badira edo barre egiten badute, galdu egingo dute eta jokalaria kanporatuz joango dira.

MATERIALAK: puxika eta uzta handia.

PAPEREZKO HARTXOAK

JARDUERA: ZIENTZIA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Sormena garatzea, irudimena piztea eta zientziaren munduan barneratzea.
- Askotariko materialekin harremanetan berriazko esku-trebetasun eta trebetasun psikomotorrak garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea jolas- eta zientzia-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 4. GJHaz, kalitatezko hezkuntzari buruzkoaz, berba egingo dugu, guzti-guztiok zientziaz baliatzeak duen garrantzia sustatuz, eta horrekiko interesa piztuz. Horretarako, zientzia-tailer baten bidez zientzia hurbilduko dugu parte-hartzaileengana. Tailerra paper xurgatzailearekin egindako harren gainean uraren erreakzioa eta kolorea esperimintatzean datza. Ura tanta-dosifikatzaile batekin sartuko dugu pixkanaka-pixkanaka. <https://ar.pinterest.com/pin/985231160441601/>

MATERIALAK: paper xurgatzailea, koloretako errotuladoreak, brotxeta-makila, artaziak, tanta-dosifikatzailea eta ontzia.

ABENDUA

SUSTRAIAK – EUSKAL BANDA:

JARDUERA: MUSIKA- ETA ANTZEZPEN-JOLASAK

HELBURUAK:

- Faunaren zaintza sustatzea.

- Animatu batzuen portaera erreproduzitzea, soinuk identifikatzea eta gorputzarekin adieraztea.
- Aisialdiaz gozatzea jolas- eta hezkuntza-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: 15. GJHaz, lehorreko ekosistemen erabilera jasangarria babestu, lehengoratu eta sustatu gura duenari buruzkoaz, berba egingo dugu, erabilera horrek landaredian eta faunan duen eragina minimizatzeko helburuarekin. Horretarako, animaliak protagonista dituen musika- eta antzezpen-jolas baten bidez landuko dugu.

Jolasaren garapena: haur bakoitzak animalia-mozorro edo maskara bat (txakurrarena, katuarena, ahatearena, ...) hartuko du. Monitorea arduratuko da gidatzeaz, eta hurrek jarduteko ordena adieraziko du. Lehenik txakurra, gero katu, eta horrela hurrenez hurren. Monitorea BASERRIA! esaten duenean, haur guztiak lurrean etzango dira eta ez dute mugimendurik edo soinurik egingo. Baserria eta gaua gelditu egiten dira begiraleak animalia baten izendatzen duenean.

MATERIALAK: Animalien musika eta mozorroak.

ELURREZKO PANPINAK

JARDUERA: TAILER ARTISTIKOA

HELBURUAK:

- Klima-aldaketa geldiarazten duten ekintzak sustatzea.
- Sormena garatzea eta irudimena suspertzea.
- Aisialdiaz gozatzea jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: 13. GJHaz, klimaren aldeko ekintzari buruzkoaz, berba egingo dugu, gure klimari kalterik ez egiteko eta klima-aldaketa geldiarazteko positiboak diren ekintzez hitz egingo dugu, beste ondorio batzuen artean tenperaturen igoera baitakar horrek, eta elur gutxiago egitea eragiten du horrek. Jarraian, tailer bat egingo dugu, elurra izanik gure protagonista. Katilu batean bizarra mozteko aparra eta itsasgarria erdiz erdi nahasi behar dituzu. Marraztu kartoi mehearen gainean egin gura duzun marrazkia. Has zaitez pintzel baten laguntzaz marrazkiaren gainean margotzen. Ipini nahi dituzun apaingarriak eta kito!

MATERIALAK: Bizarra egiteko aparra, itsasgarria, koloretako A4 kartoi meheak, apaintzeko botoiak eta irudiak.

GABONETAKO SORPRESAK

JARDUERA: TAILER ARTISTIKOA

HELBURUAK:

- Faunaren zaintza sustatzea.
- Sormena garatzea eta irudimena suspertzea.
- Aisialdiaz gozatzea jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: 15. GJHaz, lehorreko ekosistemak babestu, lehengoratu eta horien erabilera jasangarria sustatu gura duenari buruzkoaz, berba egingo dugu berriro, landaredian eta faunan duten eragina minimizatzeko helburuarekin. Oraingoan, tailer artistiko baten bidez landuko dugu, eta untxi bat izango da bertan protagonista.

Basoa hartu eta irekidurak egingo dizkiogu goian eta muturretan eta oinarrian; ondoren, untxiaren burua moztuko dugu kartoi mehean, eta belarriak eta aurpegia jarriko dizkiogu eta lastotxoari erantsiko diogu.

Besoak ere lastotxoarekin egingo dizkiogu, eta grapaz finkatuko diogu gorputzari. Kolaz itsatsiko dugu. Azkenik, lastotxoak irekiguneetatik sartuko ditugu eta has gaitezke haiekin jolasean. Basoaren azpian lastotxoa mugitzean, untxia mugitu egingo da.

MATERIALAK: erabili eta botatzeko edalontzi jasangarriak, kartoi mehe zuria eta arrosa, errotuladoreak, artaziak, grapak, itsasgarria eta lastotxoak.

URPEKO BIZITZA

JARDUERA: TAILER ARTISTIKOA

HELBURUAK:

- Itsaso eta ozeanoen zaintza sustatzea.
- Sormena garatzea eta irudimena suspertzea.
- Aisialdiaz gozatzea jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: 14. GJHaz, urpeko bizitzaz, berba egingo dugu. Ozeanoak itsas zalditxo, izurde, balea, koral eta beste izaki bizidun askoren bizileku dira. Ozeanoak gure planetaren bizi-euskarria dira, ura, elikagaiak eta klima erregulatzen laguntzen baitute. Jarraian, sormenezko arrain batzuk eginez landuko dugu gaia.

Arrainak egiteko, biltzeko burbuiladun plastikoa birziklatuko dugu. Jarraian, tenpera urdin eta zuria jarriko diogu arrainetan. Azkenik, kartoi mehe beltzezko pleguen gainean, arrainak margotuko ditugu tenperaz egin ditugun arrainen estanpazioarekin. <https://ar.pinterest.com/pin/211174974081053/>

MATERIALAK: Birziklatzeko burbuiladun plastikozko plegua, kolore zuri eta urdineko tenperak, pintzelak, artaziak eta kartoi mehe beltza.

OLENTZERO DATOR!

JARDUERA: KARTOIZKO SORKUNTZA-LANAK

HELBURUAK:

- Sustatzea.
- Sormena garatzea eta irudimena suspertzea.
- Aisialdiaz gozatzea jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: 10. GJHaz, desberdintasunak murrizteaz, berba egingo dugu, ume batzuek ezin dute eskolan bazkaria ordaindu eta gose dira. Eskuzabaltasun-jarrera eta besteari laguntzea landu behar dira. Jarraian, GJHa lantzen jarraituko dugu, mugikortasuna emango diogun ebakigarri batekin. Ebakiko dugun pertsonaia Olentzero izango da, Errege Magoak edo Papa Noel ere aukera daitezke, besteez gogoratzen diren eta opariak banatzen dituzten pertsonaia eskuzabalak. Pertsonaiak margotu egingo ditugu, ebaki, eta koadernagailuekin eskuei eta oinei eutsiko diegu. Eta gero, jolastera!

MATERIALAK: Olentzeroren (Erregeen edo Papa Noelen) fitxa, artaziak, kolorezko pinturak eta koadernagailuak.

URTARRILA

OZEANOAK SORTZEN

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Ozeanoen, itsasoen eta itsas baliabideen erabilera iraunkor edo jasangarria sustatzea.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Botilen barruan gure ozeano partikularra sortuko dugu, non itsas animaliak bizi diren.

<https://www.pinterest.es/pin/283515739032799662/?mt=login>

MATERIALAK: ur-botila, ura, koloretako lastotxoak, koloretako klipa eta itsasteko begiak.

ITSAS ANIMALIAK: OLAGARROA.

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Itsas baliabideen erabilera iraunkor edo jasangarria sustatzea.
- Sormena garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea hezkuntza-ikuspegia duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Itsaso eta ozeanoetako biztanleetako bat sortuko dugu, olagarroa. Olagarro handiak egingo ditugu A3 tamainako kartoi mehearekin, eta zirkuluak markatuko ditugu kartoizko hodiekin eta tenpera zuriarekin. Jarraian, begiak jarriko dizkiogu paperarekin eta errotuladore beltzarekin.

MATERIALAK: kartoi mehe morea edo horia, artaziak, papera, errotuladore beltza, itsasgarria, tenpera zuria eta kartoizko hodiak.

OZEANO-GARBITZAILEAK

JARDUERA: ARRANTZA- ETA SORKUNTZA-JOKOA

HELBURUAK:

- Ozeanoen, itsasoen eta itsas baliabideen zaintza sustatzea.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Ozeanoak sortuko ditugu urez betetako ontzi lauetan, eta bertan edari-txapak jarriko ditugu, itsasoen eta ozeanoetan dauden hondakin txarrak irudikatzen. Kalterik egin ez dezaten, hondakin horiek ezabatu egin behar dira. Horretarako, arrantza-joko bat egingo dugu, eta bertan, arrantzarako kanaberak imanak izango ditu, hondakinak errazago jaso ahal izateko.

MATERIALAK: urarentzako ontzia, txapak, imana, pipa-garbitzailea eta haria.

ITSAS HONDOA ZAINTZEN

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Ozeanoen, itsasoen eta itsas baliabideen erabilera iraunkor edo jasangarria sustatzea.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea hezkuntza-ikuspegia duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Ozeano zirkularrak sortuko ditugu hondoa eta bertako biztanleak birsortzeko. Material nagusi legez, kartoi mehea eta pinotxo papera erabiliko ditugu egiteko.

MATERIALAK: kartoi mehe urdin argia eta beste kolore batzuk, pinotxo paper urdin ertaina, zeta-paper berdea, itsasgarria eta artaziak.

CRISS CROSS ERRALDOIA

JARDUERA: JOKO ERRALDOIAK

HELBURUAK:

- Ozeanoen, itsasoen eta itsas baliabideen erabilera iraunkor edo jasangarria sustatzea.
- Psikomotrizitatea garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera psikomotor eta ludikoekin.

DESKRIBAPENA: Psikomotrizitate jokoak elastikotasuna probatzeko jarrera dibertigarriekin.

MATERIALA: Criss cross erraldoiak.

NOR BIZI DA ITSASOAN?

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Ozeanoen, itsasoen eta itsas baliabideen erabilera iraunkor edo jasangarria sustatzea.
- Gaitasun kognitibo batzuk garatzen laguntzea, hala nola arreta eta memoria.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera ludikoekin.

DESKRIBAPENA: Zer animalia bizi dira itsasoan? Jolas dibertigarri honetan jolastuko gara, itsasoan bizi diren animaliak ikasteko. Hormaren gainean, lehenik, horma-irudi urdin handi bat itsatsiko dugu, itsasoa irudikatzen. Animalien irudiak dituzten txartelak aterako dira eta itsasoan bizi diren animaliak diren edo ez asmatu beharko dute. Asmatzen denean, horma-irudi edo muralean itsasten da. <https://www.youtube.com/watch?v=leh3JkGtA40>

MATERIALA: txartelak animalia-irudiekin, horma-paper urdina, zelo eta itsasgarria.

OTSAILA

ONTZIARI JAURTITZEA

JARDUERA: SORKUNTZA BIRZIKLATUKO TAILERRA ETA JAURTIKETA-JOKOAK

HELBURUAK:

- Klima-aldaketa geldiarazten duten ekintzak sustatzea.
- Sormena garatzea eta begien eta eskuen arteko koordinazio espezifiko hobetzea.
- Aisialdiaz gozatzea jarduera artistikoekin eta birziklatzearen balioa irakatsiko dutenekin.

DESKRIBAPENA: Bola-jokoa sortuko dugu material birziklatuarekin. Bola aluminiozko paperez, adibidez, askarian erabilitakoaz, egingo dugu, eta birla edo txirloak erabiltzen ez diren plastikozko botilekin egingo ditugu; daukagun paperarekin eta pinturekin apainduko ditugu eta zenbaki bat jarriko diegu.

MATERIALAK: material birziklatua (botilak, aluminiozko papera eta papera), pinturak, artaziak, itsasgarria eta errotulagailu beltza.

HARTZ ZURIAK EZ DU ETXERIK

JARDUERA: PLASTILINAZKO SORKUNTZA

HELBURUAK:

- Klima-aldaketaren ondorio negatiboei buruzko kontzientzia sortzea.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Izotz zati txiki batean hartz zuriaren irudia duen kartoi mehezko orri baten gainean, plastilinarekin sorkuntza-lan bat egingo dugu. Plastilinaz beteko ditugu hartz zuria eta bere izotz zati txikia. Irudi honen bidez, klima-aldaketaren ondorio negatiboez kontzientziatu gura dugu.

MATERIALAK: A4 tamainako kartoi mehezko fitxa eta plastilina zuria eta urdin argia.

CLIMATE CHANGE

JARDUERA: Zientzia-tailerra

HELBURUAK:

- Klima-aldaketaren ondorio negatiboei buruzko kontzientzia sortzea.
- Hurrei klima-aldaketarekin lotutako zenbait kontzeptu azaltzea, fenomeno hori eta horren ondorioak erraz uler ditzaten.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten esperimenduekin.

DESKRIBAPENA: Klima-aldaketaren ondorioak erraz azaltzen dituzten 3 esperimendu egingo ditugu. 1. jarduera: Hodeia poto batean. 2. jarduera: Berotegi-efektua. 3. jarduera: Izotz urtua.

<https://www.babysits.es/recursos-para-la-comunidad/2555/experimentos-sobre-el-cambio-clim%C3%A1tico-para-ni%C3%B1os/>.

MATERIALAK: 1. jarduera: flaskoa edo ontzia, ur beroa, pospolo bat eta ontziaren irekidura estaltzeko plater edo objektu bat. 2. jarduera: Bi poto, bi termometro, potoak estaltzeko zerbait eta argi pixka bat, adibidez, linterna batena. 3. Jarduera: ontzi gardena, lurra izango den objektu bat (ontzia, harria...), ura eta izotza.

ERLOJU METEOROLOGIKOA

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Klimaren eta eguraldiaren arteko aldea erraz planteatzea bi termino horiek argi ulertzeko.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten sorkuntza-jarduerekin.

DESKRIBAPENA: Erloju meteorologiko batzuk egingo ditugu, hurrek eguraldi atmosferikoaren kontzeptua ulertu ahal izateko, soilik bere kristaletan zehar begiratzuz eta unean uneko eguraldi atmosferikoa zelakoa den aztertuz. Ebaki, margotu eta erlojuaren orratza jarri beharko dioten fitxa batetik abiatuta egingo dugu.

MATERIALAK: erlojuaren eta elementuen (marrazkiak eta gezia) fitxa, artaziak, itsasgarria, koloretako errotuladoreak, orratza eta eseki edo zintzilikatu ahal izateko soka.

AMETSAK HARRAPATZEKOA

JARDUERA: SORKUNTZA- ETA BIRZIKLATZE-TAILERRA

HELBURUAK:

- Berrerabilpena eta birziklapena sustatzea, gauza guztiek bigarren bizialdi bat dutela irakatsiz.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Ametsak harrapatzeko batzuk egingo ditugu gure logela edo terraza apaintzeko. Birziklatuko ditugun CDekin eta koloretako zintekin eta artilearekin egingo ditugu.

MATERIALAK: CDak, koloretako zintak, koloretako artileak, kola edo itsasgarri likidoa eta koloretako bihi edo aleak.

BESTE BIZIALDI BAT EMATEN DIOGU

JARDUERA: SORKUNTZA- ETA BIRZIKLATZE-TAILERRA

HELBURUAK:

- Birziklatzea sustatzea.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Birziklatzea zein garrantzitsua den azalduko dugu eta ondoren sukalde bat eraikiko dugu birziklatutako materialarekin. Amaitzen dugunean, berarekin jolastu gaitzke apur bat.

MATERIALAK: kartoizko kaxa, CDak, plastikozko tapoiak, itsasgarria eta errotuladoreak.

EKOMEZUAK

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Klima-aldaketaren ondorio negatiboetako buruzko kontzientzia sortzea.
- Sormena garatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Ateko esekigailu edo zintzilikarioak egingo ditugu ingurumena zaintzeari buruzko mezuekin, ingurumena zaintzeak duen garrantziaren mezua familia-ingurunera eramanez ahal izateko. Koloretako kartoi meheekin eta ebaki beharreko elementuen txantiloiekin egingo ditugu.

MATERIALAK: koloretako kartoi mehea, ebaki beharreko elementuak (eguzkia, planeta, etab.) dituzten koloretako kartoi mehezko txantiloiak, artaziak eta itsasgarria.

SASKIRATU HONDAKINAK

JARDUERA: JAURTIKETA-JOKOAK

HELBURUAK:

- Hurrei birziklatzen irakastea.
- Psikomotrizitate lodia garatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera ludikoekin.

DESKRIBAPENA: Kaxak hartu eta kolore bakarreko kartelen bat jarriko diogu: urdina, berdea, horia. Lurrean lerro bat marraztuko dugu (barruan bada, kolorezko zinta isolatzailearekin egingo dugu eta

kanpoaldean klarionarekin),

non jokoan parte hartzen dutenak kokatuko diren, eta urrun samar kutzak ipiniko ditugu. Ondoren, umeei hondakinak emango dizkiegu: plastikozko botilak, egunkari-papera, askariko ogi zatiren bat... Saskiratzeko gai izango dira? Hondakin delikatuen kasuan, kutxara hurbildu behar dugu kontu handiz bertan uzteko.

MATERIALAK: kartoizko kaxak, itsasgarria, koloretako folioak (horia, berdea, urdina), errotuladoreak eta birziklatzeko hondakinak.

MARTXOA

URAREN ZIKLOA

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Uraren zaintza sustatzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Maketa argigarri handi bat egingo dugu uraren zikloaren etapa ezberdinekin. <https://www.youtube.com/watch?v=D3h2zy4kmGw>

MATERIALA: kolore zuri, urdin, berde, marroiko tenperak, pintzelak, kartoizko kaxa, zeloa, kartoi mehe marroi eta berde pixka bat, artaziak, buztina eta itsasgarria.

EURI-TANTAK

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Uraren zaintza eta uraren zikloaren ezagutza sustatzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Kartoi mehezko mugikor handi bat egingo dugu hodei bat eta bere ur-tantatxo irribarretsuak simulatuz. Jarduera honetan, hurrek uraren zikloa ikastea gura dugu, hodei bat eraikiz eseki edo zintzilikatzeke.

MATERIALA: kartoi mehe zuri handiak, zelofan-paper urdin argia, A4 kartoi mehe urdin argia, artaziak, itsasgarria eta errotuladoreak.

ZER GERTATZEN ZAIO GURE ITSASADARRARI?

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Ohitura onak sustatzea, gure ibaien eta itsasadarren kutsadura saihesteko.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera ludiko eta artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Gure itsasadarrarekin horma-irudi edo mural handi bat egingo dugu eta, aparte, hainbat elementu egingo ditugu, batzuk kutsatzaileak eta beste batzuk itsasadarrekoak. Sorkuntza horrekin ohitura onak landu ahal izango dituzte uraren kutsadura saihesteko, zaborra zer den azpimarratuz. Lehenik eta behin, itsasadarraren horma-irudia egingo dugu guztion artean, eta, ondoren, elementu kutsagarriak eta ez-kutsagarriak margotu eta ebakiko ditugu, eta belkroa jarriko diogu atzeko aldean. Itsasadarrean belkro zati txikiak jarriko ditugu itsatsita. Ondoren, itsasadarrean itsatsiko dugu guztia, eta, azkenean, kutsagarria dena kendu eta zakarrontzian jarriko dugu.

MATERIALA: horma-papera, koloretako argizariak, zeloa, artazi edo guraizeak, belkroa, elementu kutsagarrien eta ez-kutsagarrien irudiak.

KAMERAREN ERRITMOAN

JARDUERA: ANTZERKI-INPROBISAZIOKO JOKOAK

HELBURUAK:

- Uraren zaintza sustatzea.
- Sormena sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Lehenik eta behin, bakoitzak ur-ontzi bat marraztu behar du folio batean, eta hori zeloarekin itsatsiko dugu jokoaren aldean. Antzerki-jolas honetarako mugimendu handia behar dugu: korrika egin behar da, salto egin, hanka bakar batean ibili... zuzentzen duenak “stop!” oihu egin arte; une horretan denek guztiz geldi geratu behar dute ontzi baten barruan, harik eta zuzentzen duenak hurrengo agindua eman arte, eta hau izan daiteke: kamera geldoan, kamera ertainean edo kamera azkarrean. Jolasean gabiltzan bitartean, gidariak erritmo horietan (kamera normalean, kamera azkarrean eta kamera motelean) garatzen den istorio bat kontatzen du.

MATERIALA: papera, pinturak eta “Ezberdina izan nahi zuen tanta” istorioa.

EURI MAITEA-QUERIDA LLUVIA

JARDUERA: TXOTXONGILO-TAILERRA

HELBURUAK:

- Uraren zaintza sustatzea.
- Sormena sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Bakoitzak txotxongilo bat egingo dugu ur-tanta bat irudikatuz, gero euriaren ekintza proiektatzeko guztion artean. Feltroa erabiliko dugu material nagusi gisa.

MATERIALA: feltro urdin argia, borla zuriak eta arrosa argia, artile beltza eta kola edo itsasgarri likidoa ‘imedio’ motakoa.

URA DA ZURE LAGUNA / EL AGUA ES TU AMIGA

JARDUERA: HAUR-ZINEMA DIDAKTIKOA

HELBURUAK:

- Uraren zaintza sustatzea.

- Sormena garatzea, kritikoki pentsatzeko gaitasuna indartzea eta irudimena suspertzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Urak gure bizitzan duen garrantzia modu sinple eta entretenigarrian ezagutzen dute. Haurrentzako film laburrak erabiltzea, haurren arreta modu didaktikoan bereganatzen duten hauek bezalakoak. Pertsonaiak deigarriak dira eta istorioek modu dibertigarrian agerian uzten dute nabarmendu gura dena. 1. proiektzioa: <https://www.youtube.com/watch?v=HTz9SERAf0>. 2. proiektzioa: Ura da zure laguna (Arteta Haur Hezkuntza). <https://www.youtube.com/watch?v=C6WQ7uY5W7o>

MATERIALA: proiektagailua eta filmak.

URAREN MUNDU EGUNA!

JARDUERA: IPUIN-KONTAKETA IKUSKIZUNA

HELBURUAK:

- Uraren zaintza sustatzea.
- Sormena sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Iritsi da martxoaren 22a, gero eta gehiago babestu behar dugun baliabide baten, uraren, garrantzia nabarmentzen duen data. Kausa honekin konprometitu behar dugu, eta egun hau eta egun guztiak izan daitezela: Uraren Mundu Eguna!

Uraren erabilera arduratsuz eta egokiaz hitz egiten duen ipuin-kontaktetako ikuskizun handi batekin ospatuko dugu eguna.

MATERIALA: ipuin-kontaktetako ikuskizuna.

GHOST POPERS

JARDUERA: SORKUNTZA- ETA EKINTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Uraren zaintza sustatzea.
- Sormena sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Jostatzeko jaurtitzaille dibertigarriak sortuko ditugu. Ur-edalontzi organiko batzuk hartu eta kontuz oinarria kenduko diegu. Ondoren, globo edo puxika bat lotu eta goiko aldea moztuko diegu. Jarraian, edalontziaren behealdean jarriko dugu zinta isolatzailearekin. Azkenik, espresioa jarriko diegu aurpegi txiki irribarretsuarekin eta... jolasera! Ur-tantak irudikatzen dituzten borla urdinak jaurti eta jasotzen jolas egingo dugu. Binaka egingo dugu.

MATERIALA: edalontzi organikoak, guraize edo artaziak, kuterra, zinta isolatzailea, puxikak eta errotulagailu iraunkorra.

APIRILA

ONGI ETORRI, EGUZKI

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Eguzki-energia sustatzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Eguzkia energia-iturri bat da. Zerutik jaurtitzen ditu bere izpiak, argia eta beroa ematen digutenak. Jarraian, bakoitzak geure eguzkia egingo dugu, guztiontzat zein garrantzitsua den gogoratzeko. Kartoi mehearekin eta pinotxo-paperarekin egingo dugu.

MATERIALA: eguzkiaren txantiloia kartoi mehe horian, pinotxo-paper horia, guraize edo artaziak, itsasgarria eta errotuladoreak.

EGUZKI-ENERGIA

JARDUERA: MAKETAK

HELBURUAK:

- Eguzki-energia sustatzea eta ezagutzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Eguzkia energia-iturri berriztagarria dela azalduko dugu, eta panel fotovoltaikoen eta eguzki-sistema termikoen bidez eguzki-erradiazioa elektrizitatea edo beroa sortzeko erabiltzen dela. Horren adibide dira etxeetan jartzen diren eguzki-plakak energia jasangarri hori izateko.

Jarraian, kartoi mehez etxe txikiak egingo ditugu beren eguzki-plaka eta guzti.

MATERIALA: etheen fitxa, artaziak, itsasgarria eta koloretako pinturak.

HAIZEAREN ZIRKUA

JARDUERA: SORKUNTZA- ETA ESPERIMENTAZIO-TAILERRA

HELBURUAK:

- Energia eolikoa sustatu eta ezagutzea.
- Sormena sustatzea eta puztean objektuen mugimendua ezagutzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Gure zirku partikularrean gure ikuskizunak haizearen bidez mugiaraziko ditugu:

- Tirolina: Panpinari putz egingo diogu beste muturrera iritsi arte. Tirolina kartoiarekin eta lasto txiki batekin egingo dugu.
- Zuzi gizona: Putz egingo dute eta ileak eta zuzia zelan mugitzen diren ikusiko dute. Kartoiarekin eta zelofanezko zinta finekin egingo dugu.

MATERIALA: kartoia, lastotxoa, errotuladoreak, artaziak, itsasgarria eta zelofana.

PUTZ-LASTERKETA

JARDUERA: MUGIMEN-JOKOAK ETA SORKUNTZA PARTEKATUA

HELBURUAK:

- Energia eolikoa sustatzea eta ezagutzea.
- Sormena sustatzea eta koordinazioa lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera ludiko eta artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Energia eolikoa **haizearen** indarraren ondorioz sortzen den **energia**-iturri berriztagarria da.

Energia hori azaltzeko, putz-lasterketen jolas-panel bat eraikiko dugu, jarraian jolas egin ahal izateko.

MATERIALA: kartoi handia, plastikozko lastotxoak, itsasgarria, ping pong pilotak eta plastikozko 3 edalontzi.

MAIATZA

IGELAK BEZALA ARNASTEN DUGU

JARDUERA: MINDFULNESS TAILERRA

HELBURUAK:

- Zure eta guztion osasuna sustatzea.
- Mindfulness-aren onurak esperimendatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera osasungarriekin.

DESKRIBAPENA: Mindfulness-ak onura ugari ekartzen dizkie gorputzari eta guztion adimenari, estresa eta emozioak kudeatzen lagunduz. Tailer honen bidez, haurrak teknika hau praktikatzeko hasiko dira hainbat ariketaren bidez.

<https://www.youtube.com/watch?v=OHqG-O1g5Nc>

MATERIALA: igelaren audioa, arnasketa-laguna eta esterilla (gomazko zorua, puzzle erakoa).

ORTU TXIKIA

JARDUERA: EKOTAILERRA

HELBURUAK:

- Haurren dieta eta osasuna hobetzeko lan egitea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Dieta orekatua kalitatezko elikagaiekin izateak osasunerako duen garrantzia azpimarratzeko, gure ortu edo baratze txikiak sortzen ditugu. Ortuan oso elikagai osasungarriak hazten dira guztiontzat.

Baratze edo ortu txikiak arrautza-kartoiaren gainean egingo ditugu; han lurra eta gure haziak jarriko ditugu, eta itxaron baino ez.

MATERIALA: arrautza-kartoa, pintura berdea, lurra, haziak, koilara bat eta ura.

ERRITMOA ETA MUGIMENDUA

JARDUERA: GORPUTZ-ADIERAZPENENKO JOKOAK

HELBURUAK:

- Jarduera osasungarriak sustatzea.
- Haurren irudimena, sormena eta bat-batekotasuna bultzatzea, beren emozioak eta munduari buruzko ezaupideak erakutsiz.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera ludiko eta osasungarriekin.

DESKRIBAPENA: Gorputz-adierazpeneko jolasak, oso modu osasungarrian ondo pasatzeko: puxika, krispetak, dortoka-lasterketa, zatika dantzatzea... eta hori guztia gorputzaren, mugimenduaren eta adierazkortasunaren bidez.

<https://www.vocaeditorial.com/blog/actividades-de-expresion-corporal-para-ninos/>

MATERIALA: musika.

¿Y SI ME COMO UNA ZANAHORIA? (ETA AZENARIO BAT JATEN BADUT?)

JARDUERA: IPUIN-KONTAKETA ETA SORKUNTZA-TAILER PARTEKATUA

HELBURUAK:

- Elikadura osasungarria sustatzea
- Sormena sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera ludikoekin.

DESKRIBAPENA: Lehenik, *¿Y si me como una zanahoria?* ipuinaren irakurketaz gozatuko dugu. Ipuin horren bidez, haurrei bizitza osasuntsuagoa izatearen garrantzia erakutsi gura diegu, ariketa fisikoa eginez eta elikadura-ohiturak aldatuz. Ondoren, ipuinari buruzko horma-irudi handi bat egingo dugu taldean.

<https://faros.hsjdbcn.org/es/recomendacion/si-me-como-zanahoria>

MATERIALA: ipuina, horma-papera, zeloa eta koloretako argizarizko pinturak.

AZENARIOZKO CUP CAKE

JARDUERA: SUKALDARITZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Elikadura osasungarria sustatzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Tailer honetan azenariozko cup cake gozoak egiten irakatsiko diegu. Horrela, gure chef txikiak sukaldaritzako lehen sorkuntza-lanak egiten hastea gura dugu, osagai osasungarriak erabiliz.

MATERIALA: cup cake-ak egiteko makina, madalena moldea, nahasketak egiteko katilua, koilarak eta cup cake apaingarriak.

BOTA DADOA

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA ETA JOKO ERRALDOIAK

HELBURUAK:

- Ahoko higiena sustatzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Lehenik eta behin, eskala handian, jolaserako dado handi bat egingo dugu, hortz-higienearekin eta -zaintzarekin zerikusia duten irudiekin, eta, aldi berean, hortz-higienearekin zerikusia duten hainbat irudirekin fitxa erraldoiak ere egingo dira. Jarraian, horretara jolastuko gara, bakoitzak bere fitxa izango du eta botaldiak egingo ditu, fitxa betetzeko; lehenago amaitzen duenak...

MATERIALA: kartoizko kaxa, dadoa forratzeko horma-papera, A4 kartoi mehea, koloretako pinturak, artaziak eta itsasgarria.

SOS 112

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Osasuna sustatzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Osasun-langileek eroan ohi dituztenak bezalako botikinak egingo ditugu, kartoiarekin. Gero, barruan eroan ohi dituzten tresna guztiak jarriko ditugu; azken hori kartoi mehez egingo dugu.

Azkenik, kolorea emango diogu guztiari, eta barruan itsatsiko ditugu egin ditugun tresna guztiak.

MATERIALA: kartoia, fitxa tresnekin, guraize edo artaziak, koloretako pinturak eta itsasgarria.

OSPITALE HANDI BAT

JARDUERA: GIGI BLOK-AK ERAIKUNTZA-JOKOA

HELBURUAK:

- Osasuna sustatzea.
- Sormena eta irudimena sustatzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduera ludiko eta artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Gigi Bloks kartoizko kubo erraldoien sistema bat da, eta horien bidez gura duten eszenatokia irudikatu eta sor dezakete umeei. Oraingo honetan ospitale handi bat egingo dugu, osasungintzarako zentro bat.

MATERIALA: Gigi Block jokoak.

OSASUNA GUZTIONTZAT

JARDUERA: SORKUNTZA-TAILERRA

HELBURUAK:

- Guztiontzako osasuna sustatzea.
- Sormena sustatzea eta psikomotrizitate fina lantzea.
- Aisialdiaz gozatzea ikuspegi hezitzailea duten jarduerak artistikoekin.

DESKRIBAPENA: Eskala handian osasun-txartelak egingo ditugu, munduko haur guztiek izan dezaten. Kartoiarekin eta horma-paper zuriaekin egingo dugu.

MATERIALA: Kartoiak, horma-papera, artaziak, itsasgarria eta koloretako pinturak.